



EUDENEN IDAZKARITZA BERRIA FINKATZEKO ASMOZ, BILBOKO ERCILLA KALEKO 13. ZENBAKIAN DAGOEN ERAIKINEKO LAU SOLAIRU BIRGAITZEKO BETEARAZPEN PROIEKTUAREN IDAZKETA ETA BETEARAZPENAREN SEGURTASUN ETA OSASUN ARLOKO KALITATEAREN KONTROLAREN ETA KOORDINAZIOAREN LAGUNTZA TEKNIKOAK KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN EPAIMAHAIAREN BILERAKO AKTA.

Eudelen liburutegian, Bilboko Zabalguneko plazako 5. zenbakian, 2017ko uztailaren 28ko 09:30ean, xede horretarako alde aurretik egindako deialdiarekin, Eudelen idazkaritza berria finkatzeko asmoz Bilboko Ercilla kaleko 13. zenbakian dagoen eraikineko lau solairu birgaitzeko betearazpen proiektuaren idazketa eta betearazpenaren segurtasun eta osasun arloko kalitatearen kontrolaren eta koordinazioaren laguntza teknikoak kontratatzeko lehiaketaren Epaimahaia bildu da.

Epaimahaia, baldintza orrien hamabigarren klausulari jarraiki, honakoek osatuko dute:

- **Presidentetza**
Titularra: Imanol Landa Jauregi (Getxoko alkate eta EUDLEko elkarteburua)
Ordezkoa: Ager Izagirre Loroño (Mungiako alkatea)

- **1. mahaikidea**
Titularra: Josune Irabien Marigorta (Amurrioko alkatea)
Ordezkoa: M^a Natividad López de Muniain Alzola (Elburgo/Burgeluko alkatea)

- **2. mahaikidea**
Titularra: Jose Antonio Santano Clavero (Irungo alkatea)
Ordezkoa: Mikel Torres Lorenzo (Portugaleteko alkatea)

- **3. mahaikidea**
Titularra: Eneko Maioz Ganboa (Orexako alkatea)
Ordezkoa: Garazi López de Etxezarreta Auzmendi (Errenteriako alkateordea)

- **4. mahaikidea**
Titularra: Mar Zabala Mardaras (EUDLEn zuzendari nagusia)
Ordezkoa: Roberto Cañón Gorostiza (EUDLEko Antolakuntza burua)

- **5. mahaikidea**
Titularra: Xabier Zabala Zuazo (Mungiako Udaleko arkitektoa)
Ordezkoa: Juan Marco Lozano Rodríguez (Mungiako Udaleko arkitektoa)

- 6. mahaikidea

Titularra: Matxalen Acasuso Atutxa (EHAEOKo arkitekto dekanoa)

Ordezkoa: Nerea Alonso Undabeitia (EHAEOKo arkitekto diruzaina)

- 7. mahaikidea

Titularra: Arantxa Kintana San Vicente (Bizkaiko EHAEOKo arkitekto mahaikidea)

Ordezkoa: Irati Burgues Asteasu (Bizkaiko EHAEOKo arkitekto idazkaria)

- Idazkaria (hitzarekin, baina botorik gabe).

Titularra: Leire Fuente Bordagaray (EHAEOKo arkitektoa)

Ordezkoa: Uxue Campo Múgica (EHAEOKo aholkulari juridikoa)

Ezinbesteko zereginak direla eta, presidentetzako kideak eta 2. mahaikidetzako kideak ezin izan dira bertaratu adierazitako egunean. Hala eta guztiz ere, kideen erdia gehi bat bertaratuta, Epaimahaiak modu honetan eratu da:

- Mahaikideak:
 - Josune Irabien Marigorta (Amurrioko alkatea)
 - Garazi López de Etxezarreta Auzmendi (Errenteriako alkateordea)
 - Roberto Cañón Gorostiza (EUDELeke Antolakuntza burua)
 - Xabier Zabala Zuazo (Mungiako Udaleko arkitektoa)
 - Matxalen Acasuso Atutxa (EHAEOKo arkitekto dekanoa)
 - Arantxa Kintana San Vicente (Bizkaiko EHAEOKo arkitekto mahaikidea)

Idazkaria: Uxue Campo Múgica (EHAEOKo aholkulari juridikoa)

Idazkariak jakinarazi du, behar bezala iragarritako moduan, lehenengo fasean proposamenak aurkezteko epea uztailearen 17an amaitu zela, eta, guztira, 7 proposamen jaso direla. Oinarrian xedatutako anonimatua bermatuta, Epaimahaiak proposamenak aztertzeari ekin dio, dokumentazio teknikoa jasotzen duten gutun-azalak irekita; aipatutako gutun-azalak behar bezala identifikaturik daude kanpoko aldean.

Horien edukiari dagokionez, aho batez bazertu dira honako proposamen hauek, 7. oinarrian jasotako edukia ez betetzeagatik: 4. erregistro-zenbakiarekin, *Euskal Herrien Etxea*, kostu globalaren aurreikuspena ez jasoptzeagatik; 6. erregistro-zenbakiarekin, *Living Office*, memoria idazteko ezarritako DIN A4ko 5 orriko muga gainditzeagatik.

Hortaz, proposamenak aztertze prozesuan, 2. oinarrian xedatutako gutxieneko beharren programa betetzeko xedez, lehiaketaren 14. oinarrian adierazitako hiru balorazio-irizpideei erantzungo die Epaimahaiak, honako proposamen hauei dagokienez:

1. Hutsa Betez.
2. Eudel Patiora!

3. 100urtemas.
5. Agora.
7. Gogoraturaz.

Lehen berrikusketa egin da, eta, horren ondoren, honako proposamen hauek baztertu dira, funtzio eta egituraren integrazio, irtenbide energetiko eta arkitektura-irudi egokiak ez edukitzeagatik: Baztertutako proposamenak:

- Eudel Patiora!, eraikinaren alde komunetan (barruko fatxada) gehiegizko eskuhartzea proposatzeagatik, ekonomiaren nahiz hirigintzaren alorreko bideragarritasun-bermerik gabe.
- Agora, beheko solairuan gaur egun dagoen espazio handiaren funtzionaltasuna nabarmen murrizteagatik, aparteko balio erantsirik gaineratu gabe; izan ere, oinarritzotzat jotzen zen espazio zabal eta ahalik eta anitzena edukitzea beheko solairuan.

Beraz, jasotako balorazio positiboa dela-eta, honako proposamen hauek pasatu dira bigarren fasera:

- Hutsa Betez.
- 100 urtemas.
- Gogoraturaz.

Azaldutakoa kontuan hartuta, Epaimahaiak hiru proposamen hautatu ditu aho batez; izan ere, funtzionaltasunari, eraikuntzari eta alderdi teknikoari dagokionez, eskatutakoari egokitzen zaizkio, hau da, baldintza orrietan eskatutako zehaztasun-mailari eta eraikuntza-bideragarritasunari egokitzen zaizkie. Zehazki:

- 1. erregistro-zenbakidun proposamena, "Hutsa Betez" leloarekin identifikatutakoa, honako alderdiengatik balioetsi da: birgaitzerako proposatutako materialen azterketa ona eta proposamenaren eraginkortasun energetikoaren ebazpidea.

Funtzionaltasunari dagokionez, Eudelen barne komunikazio eskusiboari irtenbidea ematen dio, igogailua eta eskailera proposatuta. Hala ere, kokapena dela-eta, zirkulazio-espazio handiegia sortzen da, eta, hortaz, beste leku batean kokatzea proposatzen da.

- 2. erregistro-zenbakidun proposamenean, "100 urtemas" leloarekin identifikatutakoan, gaur egun dagoen eraikinarekin bateratzea balioesten da, baita proposatutako eraikuntza-irtenbide arrazoizkoa ere, Eudelek modu eskusiboan erabiltzeko komunikabideei irtenbide egokia ematen die-eta.

Eraginkortasun energetikoa modu egokian ebazten du, eraikinaren eraginkortasuna hobetzen duten irtenbide jasangarriak proposatuta.

Proposamenaren funtzionaltasuna balioesten da, eta, horri dagokionez, erakundearen bilera-gela beste leku batean kokatzea proposatzen da, bulegoak eraikinaren fatxadan kokatzea lehenetsita eta office erako gunek bat zehaztuta.

-Azkenik, 7. erregistro-zenbakidun proposamenean, "Gogoratz" leloarekin identifikatutakoan, barnealdeko bateratze funtzionala balioetsi da, arkitektura-proposamenari harmonia ematen dio-eta, funtzioari eta formari dagokienez.

Lanpostuen planteamendu ona balioetsi da; hala ere, lanpostuen espazioa lehenestea proposatu da, baita erakundearen espazioa berriro zehaztea ere.

Hiru proposamenek eskatutakoari erantzuten diote; hori horrela, prozesuaren 2. fasean parte hartzera gonbit egiten zaie, Aurreproiektu bat aurkeztuta. Oinarrietan xedatutakoarekin bat etorrira, 2. fasean parte hartuko duen enpresa bakoitzari BI MILA EUROKO (2.000 €) partaidetza-hobaria ordainduko zaio.

Bestalde, 1. fasean emandako dokumentazioa aztertuta, Epaimahaiak, aho batez, hiru proposamenei zehaztasun handiagoa eskatzea adostu du, honako alderdiei dagokienez:

- Kronograma gaineratzea.
- Bulegoetara sartzeko kontrol-sistemen analisia eta proposamena, adibidez, beheko solairuan langilerik ez dagoen kasuetarako.
- Lanpostuen banaketaren garapena.

Hautatutako hiru taldeek "2. fasea. Aurreproiektua" faseari dagokion dokumentazioa aurkezteko epemuga irailaren 8a izango da, 14:00etan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 12:00etan, amaitutzat eman da batzarra.

En Bilbao, a 28 de julio de 2017

Fdo.: Josune Irabien Marigorta



Fdo.: Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi




Fdo.: Roberto Cañón Gorostiza



Fdo.: Xabier Zabala Zuazo



Fdo.: Matxalen Acasuso Atutxa



Fdo.: Arantxa Kintana San Vicente



Fdo.: Secretaria: Uxue Campo Mugica

